



Ander Gortazar

Etxebizitza, ikerketa eta ezintasun-triangelu bat

Karrerako hirugarren urtea izango zen, Proiektuak irakasgaian etxebizitzaren inguruko hainbat liburu irakurtzea egokitu zitzaigunean: La Buena Vida (1), Casa Collage (2) eta La Vivienda Contemporánea (3), besteak beste.

Etxebizitzaren eboluzioan zeresana eman duten hainbat adibide ezagutu nituen orduan; ikerketa serioen emaitza gehienak, baina baita bote lasterreko adibide bikainen bat edo beste ere. Orduan ezagutu nituen izenik gabeko gela⁴, Nakagin kapsula-dorrea (5) edota Andy Warhol eta bere tribuaren loft newyorktarra.

Gizartearen bizimoduaren isla den heinean, **etxebizitza da arkitektoen kezketariko bat maila teorikoan, praktikan aurrera eramatea kosta egiten den kezka.**

Izan ere, ez dira gutxi etxebizitzaren behar berrien inguruan lan egiten duten kolektiboak (urrutira joan gabe, Donostiako Arkitektura Eskolako M-etxea), baina azpimarragarria da ikerketa hauek guztiak benetako etxebizitza eraiki batean biribiltzeko zailtasuna. Ixitura-berrikuntzak albo batera utzita, etxebizitza formatua gutxi aldatu da. Hausnarketak bideragarriak diren ikusteko, beharrezkoa da ikerketa hauek eskala errealean eramatea, egoera errealean eta pertsona errealekin; baina orduan, asmo onek errealtatearen inertiaren horman egiten dute talka.

Baina nola azaldu ezintasun hau? Triangelu baten modura adierazi daiteke, non arazoaren hiru erpinetan kokatu ahal ditugun administrazioa alde batetik, sustatzaile pribatuak bestetik, eta gizartea bere osotasunean, azkenik.

Azken erpinetik hasita, herritarrok etxebizitzari buruz ditugun usteak ulertzea ezinbestekoa da. Carme Trilla ekonomialaria da, bai eta Kataluniako Etxebizitza eta Ingurumen Saileko idazkaria ere. Haren esanetan, gizarteak “*etxebizitza inbertsio-*


ondasun gisa ulertzen du erabilera-ondasun moduan baino; merkatu libre begemoniko batek kontrolatua, esku publikoetan egon beharrean; (...) etxebizitza babestuen politika abul bat sumatzen du, non etxebizitza eskuragarria ez den eskubide bat, zorte kontua baiizik?”.

Lehengo esaldia sintomatikoa da: Eustat-en datuen arabera, EAEko etxebizitzaren % 5 baino ez dago alokairuan. Alemanian portzentajea halako hamar da. Etxebizitza etengabe baina pixkanaka ordaindu behar den zerbitzu gisa uler badaiteke ere, errentagarritasuna eta segurtasuna ematen duen ondasun izatera pasatu da (ordaintzen bukatu ostean, betiere). Ikuspegi horrek halako kontserbadorismo batera garamatza, eta begibistakoa da nekez onartuko ditugula onura garbirik gabeko esperimentuak, ondorioak *betiko* diren heinean. Ondoriozta daiteke, beraz, alokairua dela, eta ez jabetza, etxebizitza modu dinamikoan ulertzeko ukantza modu onena, eta, ondorioz, eboluzio jarraitu bat lortzeko bidea.

Erabiltzaileen jarrera esandakoa bada, erraz uler daiteke sustatzaile pribatuen berrikuntzarako gogo eskasa. Hala ere, paradoxikoa da I+G+b politikak ahoz aho dabilzan garaiotan etxebizitzaren industriak duen inertzia atzerakoi hau, eta suposatzea da utzikeria hori ez zaiela merke aterako epe ertain edo luzera.

Baina zein da administrazioaren papera etxebizitzaren ikerketaren arloan? Babes ofizialeko etxebizitzari (BOE) dagokienez, ukazina da azken urteotan izugarri eraiki dela, baina ukazina da ere jabetzako BOE-ei eman zaiela lehentasuna. EAEn alokairu babestua etxebizitza-parke osoaren % 2ra ere ez da iristen. Herbereetan portzentajea halako hogei da.

Ez dut sakonduko jabetzako etxebizitza babestuek eragin ditzaketan bidegabekerietan: eskubidea zorte-kontu bilakatzea,



Irudia: Irati Burgués

esleipena berrikusi ezin ahal izatea, edo urte batzuen buruan etxebizitzok merkatu librerera pasatzea. Diodana da, ezen alokairua bada ikerketa jarraitua sustatzeko modurik onena (bai eta etxebizitza-beharrari erantzuteko modu justuena ere), administrazioak ez duela ikerkuntza ahalbidetuko duen aldaketa kultural hori bultzatzen.

Izan ere, **idazten ari den honek uste du alokairuko etxebizitza babestuen alorrean dagoela etxebizitzaren ikerketan aurrera egiteko gakoa.**

Arrazoiatariko bat alokairuaren alde apustu egiten duen giza segmentu nagusia da, gazteria, alegia: alokairuan bizi direnen batez besteko adina jabetzan bizi direnena baino baxuagoa da, eta gazteak dira, baita ere, alokairua begi hobereenez ikusten duen giza taldea. Gazteria, definizioz, **tamaina zein kokaleku-behar aldetik aldakorragoa da (eta horrek erabiltzaileen erroztazioa esan nahi du), eta irekiagoa da, printzipioz, aldaketa kulturelek etxebizitza-esparruan eragin beharko lituzketen aldaketen aurrean.**

Bigarren argudio bat legediaren malgutasunaren ingurukoa da. Etxebizitzaren irudia, tamaina, gela kopurua eta abar legediak finkatzen ditu, oso modu zurrunean. **Ulegarria da, administrazioak bizigarritasun-baldintza egokiak bermatu behar baititu sustatzaile pribatuen balizko gehiegikerien beldur. Hala, administrazioak berak sustaturiko etxebizitzetan kezka hori desagertuko litzateke, eta beraz, baldintza malguagoz, kontzeptu berriak ikertzeko moduko baremo berri baten bidez neur liteke etxebizitzaren bizigarritasuna.**

Azkenik, beharrezko deritzot ere etxebizitza babestu hauek eraikuntza berriko auzuneetara ez mugatzeari (Gendulain proiektuaren gisara, Nafarroan), ghettoak ekidin eta testuin-

guru-aukera ezberdinak lortze aldera. Horren harira, interesgarria da Kataluniako etxebizitza-eskubidearen inguruko legea (6), etxebizitza babestuak hiri-lurzoru kontsolidatuan ere txertatzeko derrigortzen baitu.

Baina alokairua alokairu, esango nuke **etxebizitza bera ulertze-ko kultura-aldaketa dela falta zaiguna**, ezer baino lehen. Sektore publikoak etxebizitza eskubide gisa ulertu beharko luke, eta gizarteak erabilera-ondasun gisa inbertsio moduan baino gehiago. Nago hau lortzen dugun arte ez garela gai izango etxebizitzaren gaineko aldaketa sakonik onartzeko.



- (1) Iñaki Ábalos, 2000
- (2) Xavier Monteys eta Pere Fuertes, 2001
- (3) Ignacio Paricio eta Xavier Sust, 1998
- (4) *Tomorrow's House*, Georges Nelson eta Henry Wright, 1945
- (5) Kisho Kurokawa, 1972
- (6) *Llei pel Dret a l'Habitatge*, Conselleria de Medi Ambient i Habitatge de Catalunya, 2007